



Hezkuntza sistema

Irakas-sistemaren Hizkuntz Normalkuntza: nondik norakoaren ebaluazio-saio bat

(The Linguistic Normalization of the educational system: an
evaluation of its particular aspects)



ZALBIDE ELUSTONDO, Mikel

Euskara Zerbitzuko burua
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Wellingtongo dukea, 2
01010 Gasteiz
huiseusk@ej-gv.es

BIBLID [1137-1951 (2000), 6; 45-61]

Unibertsitate aurreko hezkuntza izan da, orain arte, euskararen erabilera normaltzeko motorerik indartsunea. Hala ere, hezkuntzan soilik egindako ahaleginak hankamotz gelditzen dira normalkuntza horretan aurrera egiteko. Errealitatera so eginez, nondik nora jo?

El motor más potente de la normalización del euskara ha sido hasta estos momentos la educación preuniversitaria, que no obstante resulta insuficiente para avanzar en esa dirección. ¿Cómo se debería actuar en adelante?

Ze moteur le plus puissant de la normalisation du basque a été jusqu'à maintenant l'éducation pré-universitaire, qui est pourtant insuffisante pour avancer dans cette direction. Comment devrions-nous agir désormais?



1. Sarrerakoa. 2. Normalkuntzaren lehenengo ikuspegia: zenbat B eta, batez ere, zenbat D eredu? 3. Normalkuntzaren bigarren ikuspegia: ikasleek, eskola-amaieran, ba al dakite euskaraz? Gaztelaniaren pare ote dakite? 4. Normalkuntzaren hirugarren ikuspegia: euskaraz egiten al dute eskola-umeek, edo euskal eskolatik pasatako gazteek eta helduek? 5. Eta aurrera, zer?

1. Sarrerakoa

1982ko Euskararen Legeak, hizkuntza eta hezkuntza kontuan gabiltzanontzat, aparteko lekua izan ohi du eguneroko jardunean. Euskal Autonomia Erkidegoaren gaurko lege-markoa nekez esplika liteke berori gabe: autonomia aldiko errepide nagusia, hizkuntza kontuei dagokienez, lege horrek mugarrizatu zuela aitortu ohi da aho batez. Egia da hori, neurri on batean: bere aurretik ez zegoen, izan ere, hizkuntza —eta, beraz, hiztun-talde— bien elkarbizitzarako ia inolako lege-oinarririk; eta geroztik hartu den arauzko erabaki askok, alde edo moldez, Normalkuntza Lege horretan du bere iturburua. Ez da, beraz, lege bat gehiago. Euskara-erdaren elkarbizitzarako eta euskara indarberritzeko aginte-esparrutik eratu diren saioen alorrean, ezinbesteko aipagai eta erreferentzia puntu dugu berau. Are gehiago: oso oker ez banago, Eusko Legebiltzarra eratu zenetik lehenengo Oinarri Legea, eta bakarra, dugu euskararen erabilera normaltzeko legea. Seinale da, nolahi ere, legegileek beraiek berariazko pisua eta lekua aitortu nahi izan ziotela berorri, hasieratik beretik. Arrazoizkoa ere bada, hortaz, une batez bidean atsedean hartu eta legearen oraindainen garapen-ildoari, bai eta aurreranzko ikuspegi edo irtenbide posibleei ere, halako gainbegiratu bat eman nahi izatea.

Bitxiago da, aldiz, balantze-moduko gogoetaldirako justu 17. urteurrena aukeratu izana: zergatik 17.a hartu da eta ez, esate baterako, 13.a edo 22.a? Edota zergatik ez da, gutxienez, 20.era itxaron? Balantzea egiten hasita, izan ere, hamar urteko epealdiak arrazoizkoago, berezkoago izan ohi dira normalean; zer esanik ez mende-laurdenak eta hortik aurrerako "zifra borobilak". Zergatik, beraz, 17. urteurrenean heldu zaio gogoeta-lan honi?

Funtsean badirudi, halakorik inon esaten ez bada ere, egunetik egunera indartuz doan kezka-modu batek bultzatu gaituela guztiok normalizazio-legearen gogoeta-saioa justu orain egitera. Ondoko galdera hauetan bil daiteke agian, hoberik ezean, kezka-modu hori: bizirik eta indarrean al dago oraindik 1982ko legea? Aurrera begira eragimenik ba al du, ziztu bizian osatzen eta berrosatzen ari den gizarte-egoera berrian?

Euskararen Erabilera Normaltzeko Oinarri Legeak zer eman du orain arte eta, gizarte-giro berri honen ildotik, hemendik aurrera zer eman dezake? Gakoa hor baitago, nolahi ere: gizartea aldatzen ari dela eta, mudantza horren harian, hizkuntz politika instituzionalaren atzoko (1980 inguruko) giltzarri eta zutabe nagusiak kolokan-edo nabari direla gaur. Lehen ez bezalako kontrairitziak jasotzen dira han-hemen —eguneroko prentsan bibliografia teknikoan baino ugariago, halere—, eta garai bateko adostasun-puntu batzuen onarpen-maila indartu ordez ahuldu egin dela dirudi. Gizarte-uren bide-aldatze horiek zergatik eta zer-nola gertatzen ari diren aztertzea arras pizgarria izan liteke, unibertsitate-mundu ikasiarentzat bereziki. Premia bizikoa ere bai, agian, gizarte osoarentzat. Ez da hori ordea mintegi honen aztergai nagusia; are gutxiago nire azalpen xume honi agindu zaion egitekoaren muina. Utz ditzagun beraz sakonagoko ur-kontu horiek alde batera, eta saia gaitezen eskuartean dugun puntua argitzen: unibertsitate aurreko irakas-sisteman hizkuntz normalkuntza noraino hedatu den Autonomia Erkidego honetan; zer emaitza lortu dituen eta, eskueran dituzkegun datuen arabera, aurrera begira zer garapen-aukera eta zer muga-eragozpen izan ditzakeen.

Has gaitezen, beraz, errazenetik. Aurrera egin al du hizkuntz normalkuntzak Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako irakasmunduan? Zenbat aurreratu da? Non ditu bere indarguneak, eta non bere ahuleziak? Galdera hauei taxuz erantzun ahal izateko, jakina, beste hainbat jardun-esparrutan bezala definizio operatiboan beharrean gaude hemen ere. Justu-justu zer da, izan ere, eskola-munduko hizkuntz normalkuntza delako hori?:

- B eta, batez ere, D ereduko gela asko —ahalik eta gehien— izatea?;
- etxetik euskaldun —edo, neurri batean edo bestean, elebidun— diren neska-mutilei euskarazko ikasbide sendoa segurtatzea?;
- derrigorrezko ikasketa-aldia amaitzerakoan ikasle gazte guztiek —etxetik euskaldun zein erdaldun izan— euskaraz, hitzez zein idatziz, gaztelaniaz bezain ongi jakitea?;
- hizkuntz gaitasunei dagokienez ikasleen —ikasle guztien, gehienen, askoren— hizkuntza nagusia —ongien menderatzen dutena, burura eta ezpain-lumetara oparoenik eta lehen-lehenik datorkiena— euskara izatea?;
- eskola-umeok gainerako euskaldunekin, eskolan zein eskolatik kanpora, nagusiki euskaraz jardutea?

Bost azalpen horiek ez dira elkarren kontrakoak, jakina, baina baliokide hutsak ere ez. Esaldi batetik bestera aldatu egiten da ikuspegia; eta aztergaia bera ere bai, gutxi-asko. Goiko bost esaldi horietatik zeinek biltzen du ongien, hortaz,

hizkuntz normalkuntza-ren funtsa? Eskatu zaigun ebaluazio-saioak ezertarako balio izango badu, oso kontuan hartu beharreko puntua da hau. Izan ere, segun eskola-munduko hizkuntz normalkuntzaren zer definizio operatibo aukeratzen dugun, halakoa izango da ebaluazio-lanaren emaitza ere. Baldin hizkuntz normalkuntza B eta D ereduko gela eta ikasle asko izatea baldin bada, esate baterako, aski erantzun baikorra eman liteke: portzentaiei dagokienez gero eta ikasle gehiago doaz, Haur eta Lehen Hezkuntzan bereziki, D eta B eredura. Aldiz eskola munduan —eta hortik aurrera— belaunaldi berriek gero eta neurri beteagoan euskaraz jardutea baldin bada hizkuntz normalkuntza, erantzuna nekez izango da aurrekoan bezain itxaropentsua.

Sarrerako kontu-aipamen hau ez da, nolana ere, hitzaspertu merkeaz inoren burua nahasteko gogoz egina: funtsezko puntua da hori, aitzitik, ganorazko ebaluazio-saiorik egin nahi baldin bada. Posible da, izan ere, hizkuntz normalkuntzaren definizio operatibo diferentean arabera azken 20 urteotako ibilbidea oso probetxuzkoa, hor-nonbaitekoa edo aski atsekabezkoa izan dela ondorioztatzea. Are gehiago, litekeena da ondorio horiek guztiak, bakoitza bere neurrian, egia izatea. Legea zeharo, ondo samar, erdizka, justu antzean edo eskas bete den jakiteko, izan ere, legearen beraren edukia, bere osagai nagusiak, zehatz-mehatz argiturik behar genituzke lehenik. Badut ordea susmorik, eta susmoa baino gehiago ere bai, argitze-lan hori ez dela oraindik —legeak hamazazpi urte beteko dituen honetan— erabat burutu. Legearen inguruan pizten diren eztabaida askotxo —ez guztiak ordea, inola ere— kontzeptu-argitze horren eskasiak dakartzala uste dut. Saiatua naiz berrikitan¹, aztergai hauxe bera hizpide nuelarik, argitze-lan horretarako zenbait iritzi plazaratzen. Ez noa beraz, leku-denboraz urri gabiltzan honetan, han luzexka azaldutakoak hemen axaetik berritzen hastera.

2. Normalkuntzaren lehenengo ikuspegia: zenbat B eta, batez ere, zenbat D eredu?

1982ko Normalkuntza Legeak ez dio inon, eskola-alorrean hartu beharreko neurriez ari delarik, B eta D ereduak bultzatu behar direnik bereziki. Eskola-eremuko hizkuntz normalkuntza

ez du legeak, espresuki behintzat, ahalik eta ikasle gehienak D eta B ereduetara bideratzearekin parekatzen. Alde horretatik ez da zuzena, Normalkuntza Legearen garapen-bidea eta betetze-maila itsu-itsuan B eta D eredu bilakaerarekin —hots, eredu horien urterik urteko hazkundearekin— identifikatzea. Ez dago ahazterik lege horrek euskaraz zein gaztelaniaz ikasi ahal izateko eskubidea bermatzen duela, ez gaztelaniazko ikasbidea debekatzen. Horren ondorioz hiru eredu-molde daude hemen ofizialki indarrean eta hirugarrena, A eredu, beste biak bezain legezkoa da. Ez, gainera, 1982ko Normalkuntza Legeak hala dioelako bakarrik, edo hartarako bide ematen duelako, lehenagotik eta goragoko aginte-indarrez hala definitua dagoelako baizik. Konstituzioak berak, gaztelania estatu osorako hizkuntza ofiziala dela dioelarik, gaztelaniazko ikasbideen —eta beraz, funtsean, A ereduaren— oinarriko legezkoatasuna argi ezarria dauka.

Ez da egia, horrezaz gainera, A ereduak hizkuntz normalkuntza lortzeko orduan "ezertarako balio ez" duenik. Mila eta bostehun ordu inguruko ikasbideak, berdin du L2-a euskara, frantsesa, alemana edo ingelesa izan, zerbaiterako aukera eman lezake berez, ikasbide hori zeharo trakets eta itxuragabe antolatzen ez bada behintzat. Beste era batean esanik, L2-ren asignatura moduko ikasbideak beti eta nonahi ezertarako balio ez balu munduko ingeles-akademia gehienak eta gure euskaltegi edo gau-eskola guztiak alferrikakoak direla onartu beharko genuke. Bistan dago, ordea, hori ez dela egia: ingeles-akademietan zein euskaltegietan, handik abiatuz eta praktika bidezko jardunaz, badakigu bigarren hizkuntzak ikasi egin daitezkeela eta, hainbat kasutan, ikasi egiten direla². Errazegi pasatzen gara epai-kontuotan, nolana ere, punta-mutur batetik bestera. Ahaztu edo egiten dugu, itxuraz, ezer izatekotan luze-zabaleko gizarte-aldaketa modu bat dela, hemen eta nonahi, hizkuntz normalkuntza hori. Begien bistako language planning-az gainera identity planning eta sociocultural change ere bere baitan biltzen dituela eta, ondorioz, etengabeko gizarte-aldaketaren baitako ordain-sarien eta zigor-debekuen, itxaropideen eta amets-beldurren bilgune ere badela normalkuntza-saio oro. Plangintzako gizarte-aldaketa horiek nekez formula dikotomiko hutsera, txuri eta beltz arteko aukera etsira, murriztu daitezke beraz. Horren ondorioz A eredu, legezkoa izateaz gainera, egokia eta baliagarria ere gerta liteke gure eskola-mundu konkretuaren hainbat ingurumenetan. Ez

1. Azken orduko etorkin-multzo jakinek, Maghreb aldekoek bereziki, osatzen dute gaur egun, gure artean eta inguru hurbilean, arau nagusi horren salbuespen argia.
2. Egia ere da, ordea, eskola bidez egin ohi diren L2-ko ikasketok gutxitan gertatzen direla arrakasta osokoak bestelako faktorerik tartean suertatzen ez bada. L2 hori ezinbestean jakin beharra izan ohi da, sarri, albo-faktore horietariko bat: ezinbesteko beharra edota, gutxienez, L2 hori jakitea probetxu handikoa izatea. Bistan da gure kasuan, legea aldeko izanik ere, ez gaudela nonahi eta beti egoera horretan.

bere indar hutsez hiztun beteak sortzeko, horretarako oso motz gelditzen baita normalean, baina bai euskaltasuneranzko lehen pausoak ematen hasteko edota erdal background nabariko hainbat neska-mutil gazteri euskal kultura erabat arrotz gerta ez dakion laguntzeko. Gizartearen ikuspegi esku-zabal batek erdal biztanleonganako begirune eta gogo-biltze hori ezinbestekoa duela deritzat; gurea bezalako herri batean are gehiago.

Hori guztia egia izanik ere ez da ordea arrazoi sendorik falta, eskola-munduko hizkuntz normalkuntzaren aurrerabidea B eta, batez ere, D ereduen bilakaerarekin, eredu horien hazkunde portzentual zein absolutuarekin, parekatu eta neurtzeko. D eta B ereduko ikasleak dira izan ere, orain arte egindako neurketa guztien arabera, ikasleen eskola-amaierako elebitasun orekatuaren eredutik hurbilen daudenak. D ereduko gazteak bereziki; eta horien ondoren, neurri apalagoan, Bkoak. Ohiko salbuespenez aparte A ereduak ez du orain arte, urrundik ere, aldenik aldeko elebitasun orekatu baterako itxaropide sendorik eskaini. Eredua aukeratzeko askatasuna aitortzeaz gainera oreka horretxan aldeko apustua egiten du ordea, ezaguna denez, Normalkuntza Legeak³. Derrigorrezko eskola-aldia amaitzerakoan ikasle guztiek elebidun orekatuak izan behar dutela agintzen du berak: euskaraz zein erdaraz jarduteko behar adinbaterako jakite-maila praktikoa eskuratua izan behar dutela neska-mutil gazteek, alegia, etxetik euskaldun zein erdaldun izan. Helburu hori Dko ikasleek —eta, partez, Bkoek— betetzen dutenez ongien, zilegi eta zuzen da noski lehen hurbilketa moduan eskola-munduko hizkuntz normalkuntza B eta, batez ere, D ereduen hazkundeaz parekatzen edo neurtzen saiatzea⁴. Horrela hartutako neurria ez da erabatekoa izango, baina ez hutsaren hurrengo ere.

Noraino, eta zer modutan, zabaldu dira beraz irakasteredu elebidunak gure eskoletan? Azken hogeitau urte inguruko bilakaerak, puntu honi dagokionez, ondoko ezaugarri nagusiok izan ditu.

a) Lehen fase batean, batez ere 1977tik 1985era bitartean, "X" ereduak ezabatu eta haren ordez A ereduak zabaldu izan zen aurrerabide nagusia. Nahita ere ez zegoen,

une hartan, luze-zabaleko pauso sendoagorik egiterik: herri-ikastetxeetan, bereziki, irakasleen %95 inguru erdaldunak zirelarik aski eta sobera lan izan zen "X" hori legez kanpokotzat aitortzeaz gainera de facto ere hain urte gutxian —batez ere 1979-1983 urtealdian— desagertaraztea. X-ren galera bizkor horrek A ereduaren hazkunde zabalean —ia bat-batekoan— izan zuen, bestalde, oihartzun zuzena.

- b) Ikastolek lehendik urratua zuten bidea ikastetxe publiko eta pribatueta zabalduz, eta ordurainoko saiakuntzari B ereduak erantsiz, euskarazko ikasbideei lehen txertaguneak eskaini zitzaizkien aldi berean: bai herri-ikastetxe eskolan eta bai, neurri mugatuagoan, zenbait ikastetxe pribatutan Euskalduntze-saiotze dagokionez, erlijio-ordena jakin batzuen berariazko konpromisoa argiago azaltzea komeniko da seguruenik egunen batean.
- c) Ikastetxe askoren hizkuntzazko bideberritze horren ondorioz lehen ez bezalako pisua eta indarra hartzen hasi ziren B eta D ereduak, laurogeiko hamarkadak aurrera egin ahala. Zabalkunde hori ez zen uniforme izan. Horrela, lurraldez Gipuzkoan indartu ziren B-D ereduak gehiena eta Araban gutxien. Irakasmailei dagokionez, bestalde, Eskolaurrean zabaldu ziren lehenik eta OHOn kurtsoz kurtso ondoren, Ertaintetara beranduago eta —Lanbide Heziketara bereziki— urriago iritsiz. Ikastetxe-moteki dagokionez, azkenik, Atik B edo Drako eredu-aldaketa eta kurtsoz kurtso garapena azkarragoa izan da herri-ikastetxeetan, oro har, ikastetxe pribatueta baino.
- d) Azken sei-zortzi urteotako joerak, azkenik, A ereduaren jaitziera azkarra ekarri du berekin, behe-mailetan bereziki desagertzebidera hurbiltzen hasi delarik. Era berean, B ereduaren moteltze-modu bat ikusten da. Hazi-hazi, D ereduak bakarrik ari da azken urteotan hazten. Ez hainbat zifra absolutueta, berehala ikusiko dugunez eredu guztiei eragiten baitie jaitza-

3. Hobeto esan, hori ere Normalkuntza Legeak baino lehenago, eta goragotik, agindua du indarrean dagoen lege-markoak: Autonomia Estatutuak berak oso garbi ezartzen du, izan ere, belaunaldi gazteak osorik elebidun izan daitezen beharrezko neurriak hartu beharko direla. Estatutuak bere zantzu nagusietan esandakoa zehaztu egiten du beraz, ezer egitekotan, Euskararen Erabilera Normaltzeko Legeak.

4. Ikuspegi hau, normalkuntza-legearen neupide gisa D (eta, partez, B) ereduen hazkunde-maila hartzen duena, ez da gainera gure arteko bitxitasun bakarra: kanpokoek ere, berdin du hizkuntz plangintzan adituak, han-hemengo jostore publikoak edo nonahiko kazetariak izan, galdera berbera egin ohi dizute lehenxeago edo beranduxeago: "zuen aginte-esparruko eskoletan zenbat neska-mutilek ikasten du euskaraz?" Mundu zabalean, "sociolinguistic settings of language planning" direlakoetan bereziki, behin eta berriro agertu ohi den fenomeno da hori. Motiboak azaltzeko orduan ere aspalditxo mintzatu dugu Charles A. Ferguson (1977:12) soziolinguista: "At the present time the functional change which is most often the focus of political pressure and governmental policy making at the national level is probably the choice of medium of instruction in the educational level, and there can be little doubt that shifts in this allocation can have far-reaching consequences in the structure of the languages involved, in the patterns of communication in the nation, and in the broader political processes within which language policy decisions take place."

kopuruen erabateko beheraldiak. Bai, ordea, zifra erlatiboetan.

Zer hedadura dute hortaz A, B eta D ereduak, une honetan, Autonomia Erkidegoko irakasmiletan? Oso hedadura diferentea segun zer ikastetxe-mota (publiko/pribatu), zer lurralde (Gipuzkoa, Bizkaia, Araba) eta zer irakasmilla (HH, LMH, DBH, DBHO) kontuan hartzen dugun. Lehen hurbilpen moduan ikastetxe-mota guztiak eta Autonomia Erkidego osoa har daitezke, nolabait ere, adin-maila jakinak aparte tratatuz. Ondoko taulak —1998-99ko zifretan oinarrituak— ematen digu galdera horren lehen hurbilpen moduko erantzuna:

	EAEko ikasleak	X ereduko ikasleak	A ereduko ikasleak	B ereduko ikasleak	D ereduko ikasleak				
	Guztira	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%
DBHO 1 16 urtekoak	30.183	51	0	21.891	73	298	1	7.869	26
DBH 1 12 urtekoak	19.572	162	1	6.899	35	4.931	25	7.580	39
LMH 1 6 urtekoak	16.217	136	1	3.239	20	4.707	29	8.135	50
Haur Hezk. 3 urtekoak	15.384	125	1	1.963	13	4.674	31	8.482	55

Taula: irakasteredu elebidunen indar-banaketa EAEko ikasle guztien adin-maila jakinetan. 1998-99ko datuak.

Bere xumean ere argitasun handia ematen du goiko taula honek. Besterik ez bada ere, honako datuok begien bistaratzen laguntzen duelako:

- a) Gero eta ikasle gutxiago dator eskolara, oro har: garbi ikusten da, adibidez, 16 urtekoetan 30.000 ikasle pasatxo direla —garai batean, hainbat urtez, 40.000 inguru izan ohi ziren— eta 3 urtekoetan, aldiz, erdia inguru (15.384 neska-mutil, konkretuki). Gertaera garrantzitsua da hori alde askotatik. 1978tik hona ziztu bizian etorri zaigun fenomeno hau bere osoan eta larrian aintzakotzat hartzen ez duenak nekez ulertuko du D eta B ereduaren hazkundea justu-justu nola gertatu den. Alde batetik, zifra erlatiboetan dirudien baino azkarragoa eta gogorragoa izan da A ereduaren benetako jaitziera —hots, zifra absolutuetako ikasle-galera—: hamasei urteko ikasleen artean 21.891 gazte baldin badaude A ereduaren, hiru urtekoen artean 1.963 neska-mutil besterik ez dira: hamasei urtekoen %10era ez dira iristen, beraz. Bestalde, D ereduaren igoera portzentual sendo hori (%26tik %55era) ez da halako igoera, ez behintzat igoera sendoa, balio erlatiboetatik balio absolutuetara pasatzean: 16 urteko neska-mutilen artean 7.869 ikasle baldin badaude D ereduaren, 12 urtekoetan 7.580 daude, 6koetan 8.135 eta hiru urtekoen artean 8.482. Benetako

ikasle-kopuruetan, izen-deiturazko ikasle fisikoetan alegia, D ereduaren igoera portzentual handi hori aski moteldua gelditzen da: hazkunde osoa ez da mila ikaslara iristen.

- b) Era askotako ondorioak ditu, eskola alorrean, azken hogeitau urteotako jaiotza-gutxitzeak eta ereduaren balio absolutuzko bilakaera horrek. Euskal ikasmaterialgintzan ari diren enpresentzat, adibidez, funtsezkoa da guztiz: datu horien arabera ez dirudi, izan ere, horretan diharduten argitaldaria eta produkzio-etxeek gero eta salmenta-esparru zabal-oparogorik izango dutenik. Ez, behintzat, era nabarmenean. IRALERen eginkizunei begira, orobat, oso kontuan hartzekoa da jaiotza-kopuruen gainbehera hori, eta horrek irakasle euskaldunen beharretan duen oihartzuna: HE2ko irakasle gabeziak, azken hogeitau urteotako defizit kronikoak, panorama diferentea —orain baino ondotoz lasaiagoa— izan lezake epe ertainean. Ondoriorik sendoena, halere, hizkuntz normalkuntzaren demolinguistikazko oinarrietan izan dezake jaiotza-kopuruen bilakaera horrek: D ereduak indar betean jarraituz ere, urteroko ikasle-multzoen urriak aski urrutira leramake, onenean ere, eskola bidezko gizarte elebidunaren aldenik aldeko osatze-fasea.
- c) Eskola-kontuetara itzul gaitzen ordea eta hiru ereduotako ikasleen zifra erlatiboek hel diezaiegun berriro. Izan ere, beren muga guztiekin ere horiek azaltzen digute argien hezkuntza elebidunarekiko gizarte-joeren eta jarreraren nondik norakoa. Ikuspegi erlatibo horri heltzen badiogu, gauza bat ageri da nabarmen: kurtso-maila batzuetatik besteetara oso diferentia dela hiru ereduaren presentzia.

Goi-mailetan, dudarik gabe, A ereduaren da oraindik nagusi: 16 urteko ikasle guztien hiru laurdenak hor nonbait A (edo X) ereduaren daude. D ereduak, aldiz, biztanle-zentsoaren antzeko egoera islatzen du: biztanle euskaldunen parez pareko presentzia ageri du adin-maila horretan. Zentsoko datuen arabera EAEko biztanleen laurdena inguru da euskaldun, eta proportzio horren parean dabil D ereduaren presentzia ere 16 urteko ikasleen artean.

Behe-mailetan, aldiz, oso bestelako panorama ageri da: B eta, batez ere, D ereduak hazkunde nabarmena izan dute. Estatistika aldetik D ereduaren da, bistan denez, azken urteotako garaile argia: eredu horretara doaz 3 urteko ikasle guztien %55. Euskaldunok kalean dugun proportzioa baino esparru zabalagoa irabazi dute beraz D eta B ereduak Haur eta Lehen Hezkuntzan: garbi nabari da hori guraso gazteen azken urteotako eredu-aukeretan.

Labur bilduz: Legebiltzarrak Euskararen Erabilera Normaltzeko Legea onartu zuenetik aurrera egin dute B eta, bereziki, D ereduak. "X" eredia salbuespeneko kasuetara mugatua dago nagusiki eta A ereduak, hasiera batean leher-etzanda egin eta nagusitasun osoa eskuratu ondoren, azken hamarkada honetan atzera egin du nabarmen. Hori guztia dela medio, sei urteko neska-mutilen %50 D ereduan dago une honetan —ikastetxe-mota eta lurralde guztiak batera hartuz—, %29 B ereduan, %20 A-n eta %1 "X" moduko salbuespen-egoeran. Goiko mailetan, esan bezala, aski bestelakoa da egoera; baina hor ere antzeko joera ari da, ñabardura txikiak eta ez hain txikiak tarteko direla, nagusitzen.

Alde honetatik, ebaluazioaren emaitza argia da oso. Huts egiteko beldur handirik gabe, eta bere osoan harturik, normalkuntza-saioa unibertitate aurreko eskola-munduan aski baikorra izan dela esan daiteke, eta orain ere halakoxea dela ikusten da. Balio erlatiboek —ez absolutuek— dagokionez B eta D ereduen hazkunde-potentziala nabarmena da gainera, 3 eta 16 urteko ikasle-multzoak konparatze hutsak argi erakusten duenez. Baldin euskararen eskola-munduko normaltze-neurria B eta, bereziki, D ereduen hazkundeak ematen badu, pauso handiak egin ditugu normaltze-bidean. Hori ukatuko duen inor gutxi ikusten da, gaur egun, bazterretan: ez etxean, Euskal herrian, eta ez atzerrian ere. Ez da harritzekoa beraz, eskola-munduko normalkuntza-saio baikorren berri jakin nahi duen mundu zabaleko hainbat hiztun-herri txiki, eta han-hemengo kultur ondarea babesteko ardura duten Europako Kontseilua edo UNESCO moduko zenbait erakunde ofizial, hona begira egotea: eremu urriko hizkuntzak eskola bidez indarberitzeko orduan, sarri samar gertatzen da atzerriko instantzia horiek azken mende-laurdeneko "euskal esperientziak" aski baikor agertzea. Bere traba, aje, eragozpen eta ahulezia guztiekin ere aurrera egin duen eta gorantz doan saiakuntza da, estatistika aldetik, gurea: kopuru hutsezko neurketari dagokionez, bederen, aski balantze positiboa eskain dezake autonomia Erkidegoko eskola-saio elebidunak, euskara-erdaren elkarbizitza orekatuago batera zuzenduak.

3. Normalkuntzaren bigarren ikuspegia: ikasleek, eskola-amaieran, ba al dakite euskaraz? Gaztelaniaren pare ote dakite?

Hemengo berri ez dakienak —bai eta, oro har, eremu urriko hizkuntzen bizibide larriaz informazio sendorik ez duenak— nekez entendi dezake bigarren galdera-modu hau. Eskaini ditugun zenbakien arabera, erraz irtengo zaio halakori ondoko gogoeta-modurik: "Jakingo ez

dute bada euskaraz, eskola-orduen erdia hizkuntza horretan egiten duten B ereduko ikasleek? Eta bereziki euskara hutsez ari diren D ereduko ikasleek ez ote dute bada euskaraz ondo jakingo, horietariko asko gainera etxetik euskaldun direlarik? Ez genuke besterik behar!". Eremu urriko hezkuntza elebidunaren eta hizkuntz plangintzaren mundutxo honetan dabilenak badaki, ordea, gauza bat dela zer behar genukeen eta bestea zer dugun. Duguna, berriz, ez da urrundik ere hain erabatekoa. Horixe aztertu behar dugu atal honetan, Normalkuntza Legearen balioespen objektibo batek ezin baitu eskola bidez benetan lortzen den hizkuntz gaitasunaren erreferentzia begien bistatik galdu. Labur beharrez ari garelarik, lauzpabost puntutara bilduko dugu hemen ere balio-irizpen nagusia. Horrela,

- a) erabateko dispertsioa dago, ikasleen euskara-mailari dagokionez, egungo eskoletan: badira ikasleak, eta ez gutxi, hamasei urtera arte euskararekin nolabaiteko eskola-kontakua izan dutenak eta, eskola-aldi luze horren irteeran, itxurazko esaldi-pare bat ongi bilbatuak, hitz-etorri errazez edota doinuera egokiz egiteko gai ez direnak. A ereduko ikasle asko, nolana ere, egoera horretan daude. Baina ez A eredukoak bakarrik: B edo D ereduko hainbat ikasleren ezpainetatik ere jatoritasun-zantzu handirik gabe jasotzen da euskal mintzoaren oihartzuna. Gaitasun-mailari dagokionez D eta B ereduko ikasle guztien euskarazko jardura ez da, inondik inora, Salamancako ikasleek gaztelaniaz edo Bordelekoek frantsesez ageri ohi duten hitz-etorriaren parekoa. Ikasle euskaldunen euskara-mailan, Salamancakoen eta Bordelekoen erdara-mailetara ez bezala, dispertsio- edo diferentzi tartea handia, oso handia, dago. Dispertsio-banda horren behealdean dauden gazteek, nolabait esan, eragozpen eta muga nabariak dituzte euskara garbian, erraz eta zehatz jarduteko. Etxetik erdaldu direlako, edota euskara-erdaren egungo bizimoldeak eraginik, euskaraz ari direnean ere erdara nagusitzen zaie sarri: bai doinuera eta hotsen ebakieran, bai hitzen joskeran, maileguzko hitz-uholdean eta argot-hizkerako esamoldeetan. Dispertsio-banda horren beste punta-muturrean, berriz, euskaldun beteak daude: hitzez eta lumaz euskaraz jarduteko gaitasun ohargarria ageri duten neska-mutil gazteak. Etxetik edo inguruko euskal giro jatorretik jasotako mintzagaitasun sendoa aberasten ari dira horiek eskolaren laguntzaz, lagunarteko hitz-etorri errazari hizkuntz aldaera jaso-formalen ekarria txertatuz. Punta-mutur bion artean daude, azkenik, ikasle asko eta asko: ikasle gehienak, itxura denez.

“ D eta B ereduko ikasle guztien euskarazko jarduera ez da, inondik inora, Salamancako ikasleek gaztelaniaz edo Bordelekoek frantsesez ageri ohi duten hitz-etorriaren parekoa ”

Neurri horretako dispersio- edo banaketa-modurik ez dute gure ikasleok, bestalde, beren gaztelania-mailan ageri: hor ere badira mailak eta mailak, jakina; baina gaztelaniaz hitz egin nahi eta ezinean ari den ikasle gazterik, estatistikazko neurri ohargarrian bederen⁵, ez da gure artean askorik ageri. Hortxe dugu beraz, gauzak argitzen hastekotan, Normalizazio Legearen luze-zabaleko elebitasun orekatuaren eredutik nabarmen aldentzen gaituen lehenengo ezaugarria: eskola-urteak amaitutakoan gazte guztiak edo ia guztiak dira gaztelaniaz egiteko gai, hitzez eta idatziz. Euskararekin ez da ordea, urrundik ere, horren antzekorik gertatzen: badira euskaraz zoragarri dakitenak; ondo samar —ez, ordea, gaztelaniaz adinbateko solturaz— dabiltzanak ere baditugu tartean; baina hortik behera daude beste asko, nola edo halako euskara zakarreen —baina euskaraz— jarduten dutenetatik hasi eta esaldi-sorta ximpleena ere apenas egin dezaketen ikasleen multzora iritsiz.

- b) Non daude EAEko gure ikasleen diferentzia nabariak, euskal-erdal gaitasunen desoreka horri dagokionez? Ez entzutezko ulermenean, inondik ere: zenbaitetan aski maila murriz-mugatua bada ere, gero eta neska-mutil gehiago dira telebistan, irratan, kultur emanaldietan edo, zer esanik ez, beren ikasgelan euskaraz esaten zaiena partez edo osoz entzutezko gai. Entzutezko ulermen kontuan asko aurreratu du, batez bestean, gazte-jendearen euskara-mailak. Eskola elebidunak —A ereduak barne— bere eragina eta nola-halako arrakasta izan du horretan.

Irakurmenari dagokionez ere, egindako neurketen arabera gazte askotxo dira euskal testu arruntak partez edo osoz entzutezko dituztenak. Ez erdarazkoen pare, bere batez bestekoan; baina bai ulertu ezinaren langa gaintzeko adina. Gaiak berak, testua idazteko erabili den errejistro-mailak eta estilo-moduak aski ondorio nabarmenak izan ohi ditu noski irakurriaren ulermen-mailan, baina nekez esango dugu egungo neska-mutilen euskal gaitasunezko defizit nabarmenenak alor horretan daudunik. Etxetik euskaldun diren eta D —gutxiagotan B, inoiz edo behin A— ereduan ari diren ikasleek, gainera, gaztelaniazko hain urruti ez dagoen ulermen-maila dute itxuraz euskal testu arruntekin. Etxe-giroan eta lagunarte hurbilean erabili ohi den mintzamoldeaz gainera euskara idatziaren ulermenaz ere jabetuz doaz hein handi batean, hizkuntzaren esparru formal-abstraktoetarako ate-leihoak zabalduz. Beste hitzetan esanik, hizkuntz gaitasunaren osagarri hartzaile edo pasiboetan hezkuntza elebidunak bere arrastoa utzia du gutxi-asko eta, entzutezko ulermenean gertatzen ari den gaitasun-zabaltze horren pare, euskal testuak irakurri eta entzutezko gai dira hamasei urte inguruko hainbat gazte.

- c) Defizitak, defizit nabarmenenak, trebetasun sortzaileetan (ekoizpen- edo produkzio-trebetasunetan) dituzte gure ikasleek: idazmenean eta, bereziki, mintzamenetan. Gauza bat da esaten zaiena entzutezko edo paperak dioena irakurtzea, eta bestea euskaraz hitz egitea edo idaztea. Hemen dago, dudarik gabe, gaurko neska-mutil gazteon euskal eta erdal gaitasunen arteko diferentzia nagusia. Ikus dezagun puntu hau halako xehetasun batez, merezi du-eta. Kontua ez da ikasle guztiak euskarazko idazmen-mintzamenetan zeharo gaizki dabiltzala —hori ere ez baita inondik inora egia—, honako beste hiru baizik: eskolaren aportazioa aski murrizta eta mugatua ari dela gertatzen, produkzio-trebetasun horien alorrean ikasle guztien edo gehien gaitasun-maila erdarazko trebetasun-mailaren parera ekartzeko. Legeak markatutako elebitasun orekatuaren desideratum horretara bete-betean iristeko motx gelditzen dela eskola, alegia, etxeak eta familiak, auzo-giro hurbilak eta gizarte-ingurumenak laguntzen ez duten kasuetan. Eskolak baditu hainbat baliabide eta eragingailu, ikasleen euskara-maila era ohargarrian indartu eta hobetzeko: zerbait azaldu dugu dagoeneko, eta aurreraxeago aztertuko ditugu horiek berriro, soziokulturazko interpretazioa erantsiz. Gertaera horrek ez du, ordea, orain aipatzen dugun beste ondorio hau indargabetzen: eskola ezin izan litekeela, bere hutsean eta

5. Azken orduko etorkin-multzo jakinek, Maghreb aldekoek bereziki, osatzen dute gaur egun, gure artean eta inguru hurbilean, arau nagusi horren salbuespen argia.

bere baitarik, etxetik erdaldun diren haurrak —eta halakoak dira, gutxi gora-behera, bizpahiru urterekin eskolara datozkigun lau haurretarik hiru— luze-zabalean euskaldunduko dizkigun eta azken gizaldietako euskararen galera aldenik alde itzulipurdikatuko duen tresna. Gizarte-gune desberdinen hizkuntz jarduera nagusian txertatu behar dira eskolako ahaleginok, eta ardura handiz kudeatu, legeak begiz joak dituen helburu nagusiak itxura batean beteko badira⁶.

- d) Euskararen geroa berak bakarrik segurtatu ezin badu ere, hainbat gauza lor dezake ordea eskolak. Eskola-modu batzuek gehiago, dena den, besteek baino. Ikasleek eskola-amaieran lor dezaketen euskara-mailari dagokionez, ez dago dudarik haurrak eredu batera edo bestera eraman puntu garrantzitsua dela: eguneroko esperientziak argi erakusten du, eta han-hemen egindako neurketek oinarri empirikoa erantsi diote egiaztapen horri, B ereduko ikasleek Akoek baino euskara-maila hobea lortzen dutela oro har, eta Dkoek are hobea. Horretarako dauden arrazoi objektiboak ere behin eta berriro aipatu izan dira: euskararekiko esposizio edo kontaktu-orduak (esna-orduen % 3 inguru A ereduan, % 8-edo B ereduan eta % 14 inguru D ereduan); esposizio-ordu horien zer-nolakoa —L2 eskuratzeko klase formal-akademikoak vs. jakintzagaiak euskaraz jaso, landu eta dijerituzko input-output bideak murgiltze-programetan—, eta abar. Hori guztia egia izanik ere aski irudi ximplea eskainiko genuke, ordea, emaitzen arteko diferentzia osoa edo ia bakarria eredu mailan finkatuko bagenu. Faktore garrantzitsua da ereduaren hori, erabakigarria ere bai hainbat kasutan, baina inola ere ez bakarria. D eredurik hoberenak ere nekez sortzen ditu, normalean, 16/18 urtera iritsitakoan hitzetik hortzera euskaraz egiten duten gazteak, liburutik ikasitako Ruffiniren teorema buruz errepikatzeaz gainera beren barneko sentiera-mundua, lagun arteko zaletasun-irrikak eta haserrealdiak, bizitzaren edertasun-zantzu eta itxaropen-asmok, beldurrak eta gorrotoak euskara bizian, gatz-piperrez eta esangura betearaz zirrarez oratuak, adierazten dituztenak. D ereduaz aparte bestelako baldintzak behar izan ohi dira normalean horrelako hitzun trebeak lortzeko. Irakasleek dakite, inork baino hobeto akaso, egia latz honen berri: ereduak dezakeena ez da gutxiestekoa, baina mugagabea ere ez.

Ondorio apala irudituko zaio zenbaiti, ebaluazio-epaiaren bila joanik hain eskuarteko murrizaz itzultzea: bai argitu gabe gelditu den azter-eremua halamoduz azaldutakoa baino hagitiz zabalagoa delako eta bai, bereziki, lortutako emaitzak pozbide meharra eskaintzen duelako. Honetan ere, jakina, asmoei eta itxaropenei alde aurretik jartzen diegun goi-langak gogor erasaten dio emaitzaren gazi-gozoari. Alferrikako ilusio-gabetzerik nahi ez duenak hobe izango du, beraz, alde aurretik helburu zentzuzkoak finkatzea. Non dago, ordea, helburu horien zentzuzkotasun-puntua? Zer da berez, zehatz-mehatz, belaunaldi berrien euskara-maila jasotzeari dagokionez irakasteredu elebidunetatik arrazoizko oinarri espero litekeena eta Normalkuntza Legeak babesten duena? Honako lau puntuok, besteak beste:

- 1) **haur erdaldunak gazte elebidun bihurtzea.** Eskolaren eragin hutsaz gutxitan, gutxienetan, lortzen da gazte horiek elebidun orekatu izatera iristea. Autonomia Erkidegoko belaunaldi erdaldun berriok bere luze-zabalean elebitasun baterantz bideratzeko lehen aukera eskain dezake, ordea, eskolak. Arauz ezarrita dauden acquisition planning formula desberdinen (hots, A, B eta D ereduen) arabera, eta eskolaren gizarte-inguramenezko hainbat baldintzaren eraginez, badakigu eskola-bide horretatik oso emaitza desberdinak ari garela lortzen: ia trebetasun hartzaile axalekoan (oinarri-oinarrizko ulermen-mailan) gelditzen diren eskola-umeetatik hasi eta elebidun sendo, nahiz gutxitan erabat orekatu, diren neska-mutiletaraino iristen da maila-desberdintasun zabal hori. Erabateko elebitasun orekatua gutxitan lortzen bada ere etxetik erdaldun diren ikasleekin, haranzko pausoak egiten dira egungo eskoletan: helmuga argia definitzen du Normalkuntza Legeak, eta helmuga horretara zuzendutako hainbat ekintzari arauzko babesa eskaintzen dio. Babestu baino gehiago ere egiten du berez: helmuga horretara iristeko neurriak hartzera behartzen ditu Herri Aginteak. Jauzi handia da hori, nolana ere, aurreko egoerarekin konparatuta;
- 2) **etxetik euskaldun diren haurrak, bigarrenez, beren ama-hizkuntzan alfabetatu eta jantzi** egin ditzake eskolak. Egin ere, neurri ohargarrian halaxe egiten du. Badakigu, ondo asko jakin ere, gutxienak (laurdena inguru) direla etxetik euskaldun diren haurrak, eta are gutxiago etxetik euskaraz erdaraz baino hobeto dakitenak. Tartean dugun auzia ez da, guztiarekin ere,

6. Gai hau ere ondo ezaguna da atzerriko bilingual setting eta minority language community gehienetan. Eskolaren motx gelditze horretaz Joshua A. Fishmanek eman izan ditu, bibliografia akademikoari dagokionez, argibide zabalenak: ikus, bereziki, bere Limitations on School Effectiveness in connection with Mother Tongue Transmission (Fishman, 1991: 368-80). Txosten honen hasieran aipatu dugun Charles A. Fergusonek ere, 1977ko artikuluan (ikus 4. oin-oharra), azalpen argia egiten zuen muga-eragozpen horretaz: "The importance of the school context must not be overestimated, however, since major shifts in language use may take place without support from the schools or even in opposition to educational policy." (Ferguson 1977: 12). Eskolaren eragimen mugatua hizkuntzaren iraupen-bidean, Eskoziako praktikan oinarritua, hemengo literaturan ere aspalditxodanik jasoa zegoen: ikus J.M. Sánchez Carrión *Txepetx*, 1974, *Bilingüismo, diglosia, contacto de lenguas* in Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo, VII, 3-79 orr. Inoiz gutxitan landu izan da, ordea, merezi duen sakontasunez.

laurden horren kontua bakarrik: laurdeneko haur horiek zenbateraino dira etxetik euskaldun sendo? Gizarte-molde berriak familia euskaldunen etaraino hedatua du bere eragimena, behinolako konpartimentazio hertsia apurtuz eta, neurri batean, etxe-giro barren-mamiena ere erdal mundurantzko lehen ibilbide bihurtuz. Euskara baizik egiten ez den etxeetan jaio eta hazten diren umeak oso gutxi dira. Etxean bertan hasten dira maiz asko, familia euskaldunetako haurrak ere, gaztelania entzuten eta erabiltzen: euskaldun huts baino areago euskal-erabidun izan ohi dira, ondorioz, euskal familietako haur horiek. Kasu batzuetan hain luze-zabal erabiltzen da gaztelania neska-mutil horien famili bizitzan, non euskaraz azken gordeleku hori ere arriskuan duen. Euskaraz baino errazago egiten dute erdaraz "familia euskaldun" horietako neska-mutilok, eskolaratu aurretik. Etxeak ere huts egiten du ondorioz, hainbat kasutan, hizkuntzaren belaunez belauneko transmisio betean.

Hori guztia horrela delarik, orain arte familiaren esku utzi izan den eginkizuna (euskararen belaunez belauneko transmisioa) eskolari leporatzen zaio gero eta sarriago. Horren ondorioz gero eta garrantzi biziagoa hartzen ari zaigu eskola-eremua belaunaldi euskaldun edo erdi-euskaldun horien euskarazko jardungune eta trebetasun-indargarri moduan. Euskarazko bizibideari eguneroko jardun-esparrua eskura diezaiokete eskolak, gazteen etxetikako mintzamen-gabeziei osatze-gunea eskainiz eta mintzajardun arruntari hizkuntza idatziaren gehigarria —egungo gizarte modernoan gehienok ezinbestekoa duguna— erantsiz⁷. Kasurik zaindu, landu eta arrakastatsuenetan euskal eredu jasoa, estilo-lanketa saiatuaz eta terminologia teknikoak kontzeptu-zehaztapenaz aberastua, eskaini ahal izango dio gainera ikasle-jendeari.

Hori guztia ongi lortu ahal izateko, lekuan lekuko mintzamoldeen, euskalkien eta hizkuntz eredu bateratuaren arteko zubi-lana egin dezake eskolak: mende luzez elkarri bizkar emanez bizi izatera beharturik egon diren hiztun-taldeak beren euskalkitik euskara baturainoko erreperitorio zabalaz osatu eta hornitu ditzake, gure hizkuntzaren batasun-bidea jatorrizko hizkera-molde bizien ohiko ereduetan sustraituz. Eskolak ez du zertan euskalkien hilobi izan. Neska-mutil gazteei ez



Elbira ZIPITRIA (1906-1982), ikastolen bultzatzaile sutsua.

zaie gainera, hiztun beteak izatera iritsiko badira, halkorik komeni: asko da belaunaldi berriek, hizkuntz eredu bateratua eskuratu eta menderatzeko orduan, euskararen mendez mendeko iraupen-bidearen sostengu ia bakar, eta ibilbide luze horretako gazi-gozen gordailu, izan diren euskalkietatik ikas dezaketena⁸. Hizkuntz eredu bateratuak berak, bestalde, zorrotzari eta probaleku indartsuagorik nekez izan dezake gaur-gaurkoz eskola-mundua baino⁹. Etxeko zulotik eta lagunarte hurbiletik harantz doan gizarte-bizitza zabalean euskaraz jardun ahal izango badu benetan euskaldun-jendeak, euskara batuaren —eta, oro har, hizkuntz eredu bateratutik hurbilago dauden hizkera-molde zabal, zaindu, landuen— ezagutza sendo samarra eskaini beharko du eskolak¹⁰;

- 3) hori baino gehiago ere egin dezake eskolak, eta hainbat kasutan egin ere egiten du: **euskaltasun-eredu izan eta eskola bidezko curriculum-gaiei**, gainerako osagai guztien ondoan —ez, jakina, ohikoen ordez—, **euskal dimentsioa erantsi**. Hizkuntz normalkuntzaren egitekoa hizkuntza kontu hutsera muga daitekeela uste duenik izango da han-hemen, eta nire errespetu osoa izango du halakok. Ni ez naiz ordea iritzi horretakoa: hizkuntza oro, mintzabide huts izateaz gainera, kultura baten zati, kultura horren adierazpide eta are ikur ere badela sinesten dut nik, eta badakit sinesmen horretan ez naizela bakarra¹¹. Hizkuntza eta

7. Oso argi azaldua dauka J. A. Fishmanek, besteren artean *The Rise and Fall of the Ethnic Revival* liburuan (372. or.), literacy-lanketa honen garrantzia: "Minority language maintenance increasingly requires literacy because it is only via literacy that most modern and encompassing reward systems become operative. Unless they are entirely withdrawn from the modern world, minority ethnolinguistic groups need to be literate in their mother tongue (as well as in some language of wider communication), both for the symbolic reward of literacy as well as for its material value".
8. Gai honi ere berraztertu on bat eman beharko genioke berandu baino lehen, uste baino funtsezkoagoa baita hizkuntz normalkuntzaren alorrean. Ez da hori ordea egungo txostenaren aztergai nagusia, eta iragaitzaz aipatu besterik ez da oraingoan egiten.
9. Euskara batuaren sorrerakoan bertan, Mitxelenaren 1968ko idazkian bereziki, garbi ageri da eskolagatik eta eskolarako sortu zela, hein handi batean, idazmolde standard hau. Gaurko egoera ez da noski Arantzazuko biltzarren garaikoa, baina hain bestelakoa ere ez.
10. Ez dezagun ordea ahaztu horretan ere laguntzaileetako bat —ez, inola ere, bakarra— izan litekeela eskola: eskolatik kanpora euskara idatziaren beharrik eratzten ez bada gizartearen, ikasle euskaldunei txukun —besteak beste hitzen doinuera jatorrez eta hotsen ebakera egokiz— irakurtzen eta zuzen idatzen irakasten saiatzen diren maisu-maistren lana aski antzua gertatuko da.
11. Mitxelenaren eta Fishmanen lanetan, adibidez, erraz aurki daiteke ikusmolde horren zehaztapen argirik.

kultura lokarri sendoz estekaturik daudela uste dugunontzat, berriz, nekez hiztun-talde batek bizi-iraupenezko garapenik eskura dezake bere herri-izatearen nondik norakoaz jabetu eta hori guztia gainerako dimentsio geo-historiko eta sozio-kulturaletan itxurazko modu batean txertatu gabe. Belaunaldi berrien euskal gaitasuna defintzerakoan, hizkuntz gaitasunaz gainera soziokulturazko gaitasun-modu hau ere kontuan hartu behar da hortaz. Euskal herriak bere hizkuntzari eta kulturari bizirik eutsi nahi diola, zergatik eta zertarako: hori argudiatzeko orduan ere, gizalegezko eta bake bidezko gizarte-bizitzaren oinarri nagusiak azaltzerakoan bezala, ezin alboratuzko protagonista da eskola.

Ez dut uste gai honi, zoritxarrez, behar duen atentzioa eskaini zaionik azken mende-laurdeneko hizkuntz normalkuntza saioen ebaluazioetan. Motiboa ere ez da asmatzen zaila: eskola bidezko curriculum-gaietan euskal dimentsioak behar lukeen luze-zabalaz eta izaera zentral-marjinalaz aski iritzi kontrajarriak daude gizartean, eta euskal dimentsio hori indartzen saiatzen garenok ere axal-axaletik baizik ez dugu aztergaia landu. Dimentsio desberdinen arteko oreka, integrazioa eta sekuentziazioa behar bezala zehazten ez da, nolana ere, erraza. Lan eskerga da hori, urtetako prestalanak eskatzen dituenak. Eskola baino egokiagorik lantegi gutxi du ordea gurea bezalako hiztun-herri txiki batek, eginkizun zabal horri behar bezain sendo erantzuteko.

- 4) **eskola, euskal buru-langile eta buruzagi gazteen harrobi.** Euskal herriak bere soziokulturazko bizi-eremuaren propioa izaten jarraituko badu etorkizunean —eta hori gabe alferlan hutsa litzateke hizkuntz normalkuntzaren oraingo saioa—, "etxe" barruko gizarte-bizitza horretan aitzindari eta bide-urratzaile, buruzagi eta eredu-sortzaile gertatuko diren gizon eta emakume gazteak beharko ditu, aurreko belaunaldietakoei jarraipena eman eta euskal bizi-nahia gizartearen jardun-esparru berrietara zabaltzeko. Horretan ere zeregin handia du euskal eskolak, egitekoaren zabalagatik bidegile bakarra ezin izan daitekeen arren. Maila batetik gorako hizkuntz gaitasuna lortzen badute neska-mutilok, eta euskal herri-izatearen ezaugarri-elementuak mendebal Europa honetan ohikoak diren gainerako dimentsioekin egoki oraturik eskuratzen, erreproduzio soziokulturalerako oinarriak arrazoizko neurrian ziurtatu ahal izango dira. Hori gabe, aldiz, nekez. Eginkizun ernagarria izan dezake gaur egun, alor honetan ere, euskal eskolak: belaunaldi berrien euskarazko gaitasun-maila jaso eta

osatzeaz gainera euskarazko kantari eta idazle, antzerkigile eta bertsolari, kultur enpresari eta gizarte-eragile, apaiz eta irakasle, herrigintzako plaza-gizon edo emakume eta giza zein gizarte-zientzietako jakitun berriak sortzen laguntzea.

Ikusia dugu beraz, nola edo hala, ikasleen euskal gaitasun mailan ezin litekeela txuri edo beltz moduko ondorioz atera: gaitasun-mailak berak azpiatal diferentek dituelako batetik eta, bestetik, hizkuntzazko gaitasun-kontuei soziokulturazko kontsideroak erantsi ohi zaizkiolako. Egia da ordea, guztiarekin ere, "ikasleek zenbat euskara dakite?" erantzuteko orduan ezin gaitezkeela, oro har, B eta D ereduak bilakaera-kontuekin bezain baikor-itxaropentsu izan. Gauzak ondotoz korapilotsuagoak direla ikusten da "B edo D ereduak zenbat haur daude" galdetu ordez "euskaraz zer moduz dakite" galdetzen denean. Labor-labor bada ere ikusi dugu, azkenik, belaunez belauneko hizkuntz transmisioa ez dela *vacuum* hutsean gertatzen. Hiztun-taldearen bizi-iraupenerako probetxurik izango badu transmisio horrek soziokulturazko ingurumen osoa hartu behar dela kontuan eta, hor ere, eman diren pausoak argi-ilunik gabeak ez direla ikusten da.

4. Normalkuntzaren hirugarren ikuspegia: euskaraz egiten al dute eskola-umeek, edo euskal eskolatik pasatako gazteek eta helduek?

Euskarazko gaitasun-mailaren neurketa-saio horrekin ere ez da ordea, ondo pentsatzen jarrita, gauza bukatzen. Sarritxo ahazten badugu ere, 1982ko Normalkuntza Legea ez zen berez ez B eta D ereduak zabaltzeko Legea, ez eta ikasle elebidunak sortzeko legea ere; ez hori bakarrik, behintzat. Haur erdaldunek euskara ikastea edo neska-mutil euskaldunek beren burua janztea bazuen helburu Normalkuntza Legeak —eta orain ere badu noski, oso muin-muinean izan ere—, baina ez hori bakarrik. Gogora dezagun, lehenik eta behin, 1982ko legearen izenburua Euskararen Erabilera Normaltzeko Legea dela. Erabilera da Legeak normaldu nahi duena: ez D edo B ereduak zabaldu eta ikasleen euskarazko hizkuntz gaitasuna jaso, nahiz hori guztia komenigarria edo ezinbestekoa izan. Euskaldun-jendeak —kasu honetan eskolan dabilen ikasleriak edo eskolatik pasatako gazte-jendeak— euskaraz jarduteaz edo jardun ahal izateaz dihardu legeak.

Besterik uste badugu ere hemen izatekoa du Normalkuntza Legeak, lehenxeago edo beranduxeago, bere dema-toki eta apustu-leku nagusia. Hor zuritu beharko dira, azkenean,



“Gogora dezagun, 1982ko legearen izenburua Euskararen Erabilera Normaltzeko Legea dela. Erabilera da Legeak normaldu nahi duena



euskal gizarteak bere soziokulturazko izaeraz eta euskara-erdaren ondoz ondoko esparru-banaketa zuritu eta zehaztu beharrekoak. Normalkuntza Legearen azken helburua ez baita D ereduko ikasgela asko izatea, ez eta ikasle guztiek zer-edo-zer euskaraz jakitea: euskaraz jardungo duen —edota behaztopa larririk gabe hala jarduteko gai izango den— belaunaldi berriaren labe eta hauspo izan behar du eskolak, Normalkuntza Legearen arabera. Ez da esaten noiz, non, norekin eta zertaz euskaraz —eta noiz, beraz, erdaraz— jardungo duen belaunaldi berri horrek¹², baina legeak garbi dio Autonomia Erkidegoko hiritarren erabilera normaldu nahi duela, erabilera arauzkotu. Errazegi pasa ohi gara gehienok, hanka-punttaka edo salto-jauzi arinez, erabilera normaldu hitz-bikote horren paretik, gizatalde osoen jokamoldea —hizkuntzazkoa zein beste hainbat— arautzeak dituen oinarri sozio-filosofikoak eta muga-baldintza enpirikoak sakon eta zabal arakatu gabe. Eskolan egiten ari garen esfortzua zertarako ari gara egiten?; eralgitzen den dirua eta inbertitzen dugun denbora, adimena eta ilusioa zeren argitan justifika liteke, eskola-aldia amaitu ondoko gizartearen bizimolde nagusiarekin lotura zuzenik definitzen eta egiaztatzen ez bada? Teleologiazko lanketa-falta horren zergatikoa ere ez dira gaurko aztergai, ordea, eta gatozen beraz gurera.

Euskaraz egiten al dute hortaz, legea onartu eta handik hamazazpi urtera, gure eskoletako ikasleek? Beti-bateko erantzunik ez du, jakina, galdera horrek ere jasoko: denetik dago, izan ere, ikasle horien mintzajardunean. Horrexegatik gertatzen ere da, hain zuzen, hain erantzun diferente eta maiz-sarri kontrajarriak entzutea edo irakurtzea. Gazteek gero eta euskara gehiago egiten dutela esango dizute batzuek. Zenbait udalerritan, Bergaran adibidez,

egin diren azken neurketek hori diote nonbait. Ezetz, hori ez dela inondik inora egia entzungo diezu besteei, aurrekoak bezain konbentziturik, baieztatzen. Zaila da, inondik ere, balioespen globalik egitea. Orotariko iritzi-azalpen horien ondoan badaude ordea, norabide bakarreko erantzun betera ginderamazkeen errepide zabalik eskuratuko ez badugu ere, harantz doazen bideak eta bidexidorrak. Hel diezaiegun hauei, bere xumean eta mugatuan ere lehenengo mugarri finkoak jartzen lagundu baitiezagukete. Ikus dezagun horretarako, batetik, etxetik euskaldun diren ikasleak nondik nora ibili ohi diren. Beste horrenbeste egingo dugu, ondoren, etxetik erdaldun direnekin.

a) Etxetik euskaldun —edo erdi-euskaldun— diren ikasleak: gorago esan dugunez neska-mutil hauek gaur egun D eredura doaz gehien-gehienak, beste zenbait Bra eta bakan batzuk Ara. Salbuespenik falta ez bada ere, ikasle horiek euskaraz egiten dute normalean irakaslearekin, gela barruan eta gelatik kanpora. Txikitan, gainera, eskola-lagunekin ere euskaraz egiten ohi dute nagusiki. Baina ez beti: segun eskola-ume bakoitzak edo une horretako bere solaskideak euskaraz jarduteko zer erraztasun-maila duen, zertaz hizketan ari diren eta non ari diren... horrek guztiak eragina izan ohi du neska-mutil euskaldunok euskaraz edo erdaraz egiteko kontuan. Beren mintzajarduna, dena den, euskarazkoa izan ohi da gehienetan: hasieran etxeko euskara-moduaren, euskalkiaren eta are lekuan lekuko hizkeraren jatortasun-arrastoak oso nabarmen ditu beren mintzamoldeak. Eskolaratu eta handik lasterrera bestelakotzen hasi ohi da ordea beren berba egikera: gelako ikaskide sasi-euskaldunen eta are erdaldunen eragina aski nabarmena gertatu ohi da halakoetan: bai hitzen joskeran, bai esapide jakinetan eta, are, hotsen ebakeran edota esaldi osoen doinueran.

Adinez aurrera egin ahala, etxetik euskaldun edo euskal-elebidun diren neska-mutil horien gizarte-inguramenak gero eta pisu handiagoa hartzen du beren mintzaeran: eskolaren eta familiaren eragina ahulduz doa eta lagun-taldearen, auzoko giroaren, kaleko hizkuntza nagusiaren inpaktoa, aitzitik, gogortuz eta gailenduz. Hori dela-eta Azpeitiko edo Ondarroako ikasle horietariko gehienek euskaraz egitera joko dute —edo ele bietan arituko dira, segun noiz-norekin-zertaz diharduten—, eta Donostiako —zer esanik

12. Zehazkabetasun horretan badaukagu guztiok, tamalez, azken hamazazpi urtean ildo berri gutxixko zabaldu izanaren erantzukizuna.



ez Bilboko edo Gasteizko— gazteek gehienetan erdarara: horiek ere gordeko dituzte normalean zenbait esparru, familia eta txikitandiko lagunarte hurbila bereziki, euskarazko jardunarentzat. Beste harreman-sare eta funtzio gehienetan erdara izango dute, ordea, norma sozial gidari. Euskararen erabilera normaltzeko legearen xedea, hortaz, etxetik euskaldun diren ikasleen artean bertan partez baizik ez da gaur-egun betetzen.

- b) Etxetik euskaldun —edo nagusiki erdaldun— diren ikasleak: haur euskaldunetatik goazen orain erdaldun huts, edo erdal-elebidun, direnetara. Hots, guraso erdaldunak —edo ia erdara hutsez diharduten gurasoak— dituzten neska-mutiletara. Ez dezagun ahaztu eskola-ume guztien %75 inguru multzo honetan daudela. Zer hizkuntzatan dihardute eskola-ume hauek? Irakasteredu elebidunak, lehen ere esan dugunez, eragin handia du ikasleon hizkuntz gaitasunean: A eredukoek baino ondotoz euskara gehiago dakite Bkoek, eta Dkoek are gehiago. Zer-nola eragiten du, ordea, eskolaren laguntzaz lortutako hizkuntz gaitasun horrek etxetik erdaldun diren gazte hauen eskolako eta eskolaz kanpoko mintzajardunean? Goazen ereduz eredu.

A ereduko ikasleen kasuan, salbuespen handirik gabe, erdara agertu ohi da nagusi harreman-sare eta erabilera-esparru guztietan: irakasleekin, ikasle-kideekin, familian, asteburuko kirol-taldean eta abar. Hor ez dago, ia, euskarazko jardunbide-arrastorik: gehienez ere telebistako edo irratiko euskal programa batzuen axaleko jasotzaile izatera iristen dira A ereduko ikasleok, baina hori ere ez askotan.

Etxetik erdaldun edo erdal-elebidun izanik B eredura doazen neska-mutilak ditugu, bestalde. Bko neska-mutilok badute, 10 edo 12 urtera arte bereziki, eskola barruan euskaraz jarduteko zenbait aukera eta joera, eta segun eskola zer ingurumenetan dagoen edo bertako irakasleek zer-nolako erabilera-programak eratzten eta mamitzen dituzten aski ondorio diferenteak ikus daitezke. Guztira, dena den, erdarazko jarduna ageri da horien artean ere nagusi. Euskarazko liburu-aldizkariak irakurle, euskal musikaren entzule eta gainerako kultur produktuen kontsumitzaile aktiboak izateko gaitasun-maila sendoagoa dute beren baitan, baina sendotasun hori nekez euskal mintzajardun biziaren iturri bilakatzen zaie: ez, behintzat, euskaraz jardutera behartu, erakarri edo bultzatuko dituen gizarte-eragilerik tartean suertatzen ez bada.

Etxetik erdaldun edo erdal-elebidun izanik D ereduan dabilzan ikasleek, azkenik, jokamolde dibertsifikatuagoa ageri dute beren euskal/erdal

mintzajardueran: gelako beste ikasleentzako hizkuntza nagusia zein den, gelaz kanpoko laguntaldeak nagusiki zer mintzamolde aukeratzeko duen, kalean euskara-erdarek zer pisu duten eta eskolak berak ganorazko normalkuntza-programarik duen edo ez, ... faktore horiek dira, itxuraz, ikasleentzako euskarazko mintzajardunari ateak zabaltzen edo ixten dizkietenak. Horiek eta, jakina, aurrez aurreko mintzajardun ororen betiko mugatzaileak: unean uneko solaskideak euskaldun (zenbateraino euskaldun) diren, zertaz hizketan ari diren eta non dauden eta abar. Interakzio linguistikokoaren situazio-markatzaileok funtsezko elementu gertatu ohi dira gaztetxo horiek euskaraz jarduterakoan edo, hartarako ezintasunik ez dutenez, erdal itsasora jauzi egiteko orduan.

Labur bilduz: gazteek eskolan, eta eskolatik kanpora, euskaraz egitea hartzen baldin bada Normalkuntza Legearen azken helburu, hamazazpi urte hauen (eta are, iturrietara bagoaz, aurreko mende-laurdenaren) emaitzak ondotoz apalagoak dira. Eskolan euskara edo euskaraz ikaste hutsak ez dakar, eredurik sendoenean ere, beti-bateko ondorio zuzenik hizkuntzaren eguneroko erabilera arruntean. Eskolaren A, B edo D eramoldea, ikasleentzako euskarazko mintzajardun hori zabaldu eta indartzeari dagokionez, faktore bat da beste askoren artean: ez faktore bakarra eta, hainbatetan, ezta nagusia ere. Nahi adinbat ñabardura erantsiko dizkiogu batzuek eta besteok baieztapen horri, baina seguruenik ez gara oso bestelako ondorioetara iritsiko.

Hizkuntzen erabilera-arauak lege egokien bidez aldatu eta "bere onera itzuli" daitezkeelako ikusmoldearen altzoan sortua da, bete-betean, 1982ko Normalizazio Legea. 1980 inguruko ikusmolde sendo hari halako etsipen-kutsua eransten diola pentsa dezake irakurle batek baino gehiagok, ezinbestean erantsi ere, idazlan honetan oro har eta azken pasartean bereziki egin berri den emaitza-azalpenak. Hori ez da ezinbesteko ondorioa, ordea: ez bakarria behintzat. Horrezaz gainera, eta agian horren aurretik, besterik ere iradoki dezake ebaluazio-saio honek: legeaz aparte eguneroko bizimoldea taxutzen, zurkaizten edo bestelakotzen laguntzen duten beste eragingailu ugari hartu behar direla kontuan, hizkuntz plangintzaren ontzia begiz jotako portura iritsiko bada. Hori erakusten du nire ustez, lehenik eta behin, aurreko azalpen-saioak.

5. Eta aurrera, zer?

1982tik hona joandako urteak eta tartealdi honetan egindako ahalegina ez dira, inola ere, alferrikakoak izan. Hizkuntza indarbertzeako orduan eskolak zer eman dezakeen eta zer ez ikasteko aukera eman digu, batetik, saiakuntza horrek. Bestalde, lezio hori ikasi ahala

“Gazteek euskaraz egitea hartzen baldin bada Normalkuntza Legearen azken helburu, hamazazpi urte hauen emaitzak ondotxo apalak dira”

normalkuntza-saioari berez eman dezakeen probetxu hoberena ateratzen ahalegindu (eta ahalegintzen ari) dira profesional asko, urtea joan eta urtea etorri: milaka irakasle saiatu eta ehundaka zuzendaritza-talde, hainbat guraso-elkarte, herri askotako udal edo euskaltzale-elkarte,... han-hemengo udalak, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritza bera tarteko direla. Hezkuntza Saitetik hainbat urtez eratu izan diren deialdi eta lan-programek, konkretuki, gero eta oihartzun zabalagoa jaso dute ikastetxeen hizkuntz normalkuntzako proiektuetan. Banaka edo talde-giroan, hizkuntz normalkuntzako proiektuok eratu dituzten ikastetxeak ehundaka dira gaur egun, ez hiruzpalau. Hizkuntz normalkuntzako proiektu horiek bideratzen, osatzen eta laguntzen saiatzen diren instantzia profesionalak sendotzen ari dira, gainera, han-hemen: Unibertsitatean, PATetan eta abar. Orain hamazazpi urte nekez definitu eta are nekezago kuantifikatuko zukeen inor askok, bere zabalero osoan eta aniztasun bizian, oraingo ibileraren nondik norakoa. Aurreak erakutsi du honetan ere, beste hainbat alorretan bezala, atzea nola dantzatu. Zer erakutsi digu ibilitako bideak, eta zertan saiatu beharko genuke guztiok, aurrerantzeko ahalegin hori oraindainokoaren babes-emaile eta bide berrien zabalgarri gerta dadin?

1. Batetik, eta ez behaztopa gabe, hizkuntz normalkuntza ez dela gizarte-esparru jakin

bateko ekintza isolatua ikasi dugu. Hau ez da eskola-maisu batzuen, euskaltegi-andana baten, argialetxe zenbaiten, ikus-entzunezko eta inprimatuzko komunikabide multzotxo baten eta administrazio-alorreko itzultzaile edo erdi-adabakizko Euskara Zerbitzu bakan batzuen kontua. 1982ko legeak bere idazkuntza konkretuan hartarako bide ematen badu ere, ikusmolde itxia, hertsiegia da lauzpabost ekintza isolatuaren formulazio hori. Urteak behar izan ditugu, nolana ere, language planning saioen dimentsio-aniztasunaz bere osoan jabetzeko¹³. Gizarte ororen etengabeko aldaketen zurrumbilo bizian dihardu normalkuntza-saioak; zurrumbilo horren osagai bat gehiago da hain zuzen, ezer izatekotan, hizkuntz normalkuntza. Gizartearen modernizazio-harian txertatua dago ezin lotuago, eta, horren ondorioz, gizarte-berrikuntzaren bide-lagun diren bizi-ohitura transetnizatuen, harreman-sare urrun eta inpersonalagoen, garraibide lasterren eta masa-komunikabide indartsuen, urbanizazio- eta habitat-moldaera berrien eraginpeko ere bada neurri ohargarrian¹⁴. Gizarte osoaren ordainsari sozialen eta zigor-debekuen lapikoan irakinez ari da, egunetik egunera, gizarte berriaren konfigurazio sozio-kultural hori hezur-mamitzen: hor egin beharra dauka hizkuntz normalkuntzak ere bere hil ala biziko apustua, gainerako gizarte-eragileekin lehian, elkarren arrimuan eta, ez hain gutxitan, aurrez aurreko talkan.

2. Hizkuntz normalkuntza hori guztia delako, eta ez lege eder baten eta hainbat maisu-maistra saiaturen, itzultzaile bihotz-bero batzuen edota sona handiko linguisten eta kultura alorreko jostore publiko jakinen kontu soila, giza arteko interesen eta interes-kalkuluen plazara etorri da azkenik hizkuntz normalkuntzaren proiektu osoa. "Zertara dator hizkuntz normalkuntza? Noren probetxuko da hori?" Galdera hauei erantzun baikorra ematen dionak ez du, normalean, kontu horiekin denbora gehiegi galdu beharrik sentituko. Bai, ordea, galdera horiei erantzun kezagarria, duda-mudazkoa edo ezkorra dariela sentitzen duenak. "Zertarako hainbat diru gastatu", entzuten da halakoen ahotik gero eta sarriago, "*contra natura*-ko

13. Ez nuke esango, gainera, gertaera horretaz osorik jabetu garenik oraindik.

14. Auzategi eta merkatalgune berriak eraikitzen dituztenean, bide berriak zabalitzean edo eritexe-sareak birmoldatzean, sektore publikoan zein pribatuan sortzen diren lan-postuetarako kandidatoei, euskaldun-jendearrekiko lan-harremana izan behar dutenei bereziki, euskaldun izatea eskatzen zaienean edo ez zaienean, aisialdirako zerbitzuak eta kirol mundu hurbila antolatzean,... orduan ere status planning egiten da: hizkuntz normalkuntzaren aldekoa edo kontrakoa, baina language status planning garbia nolana ere. Eskola bidezko saioak berak baino eragimen sakonagoa izan dezake, hainbat kasutan, beste plangintza modu honek. Eskola bidezko saioaren aurkakoa ere gerta daiteke erraz asko, aurrez aurre analizatzen, arrazoizko moduan eratzen eta behar den zehaztasunez finkatzen ez bada. Hitzun-herri batengan urte askotan eta indartsu eragiten duen ordainsari-sistemak hizkuntza hau, hori edo biak exijitzen baditu, bere osoan eta zabalean hizkuntza bata, bestea edo biak erabiltzera joko du (hitzez, irakurritz eta idatziz) hizkun-herri horrek. Hori ez da norbanakoon aukera librea izaten, eta eskola-sistemaren beraren eragina aski mugatua gertatu ohi da bere ibilbidearen nondik norakoan.



esperimentu sozialetan? Zer kalte-ondorio ekar ditzake saio honek guztiak, gizarte-bizitzaren beste hainbat esparrutan —herri-diruen jestio egokian, liskarrik gabeko integrazio soziopolitikoan,...—?; euskaraz erdi-ipurdika dakiten ikasle horiek nola ikasiko dute ongi matematika, biologia edo filosofia? Eta zer gertatu behar du euskaraz ez dakiten irakasle eta gainerako profesionalekin? Europa osoa herri arteko langak ireki eta bateratze-bidean barrena gogor ari den honetan zer zentzu du atzerrian inork ezagutzen ez duen, etxean ere hiru laurdenentzat ezezaguna den eta garo-usaina gaintek kendu ezinik ari den hizkuntzatxoa biziberritzen ahalegintzea? Zer zentzu du, bereziki, gure gizartearen XXI. menderanzko abenida nagusia hizkuntza ez-jakin, moldagaitz eta "herdoildu" batean antolatzen hasi nahi izatea? Eman ta zabal zazu munduan frutua zertarako kantatuko dugu, euskaldun-jendea bil-bil egin eta geure zilbor-hestera itzuli nahian ari bagara?"

Galdera hauei ez die 1982ko Legeak aurrez aurreko erantzunik ematen. Are gehiago: han ez da, funtsean, horrelako eztabaiden oihartzunik ageri. Legea irakurriz, aitzitik, auzi-galdera horiek guztiak gaindituak, termino positiboetan erantzunak eta gizartearen luze-zabal onartuak zeudela dirudi¹⁵. Denborak erakutsi du, ordea, gauzak ez zirela horrela. Hortixe sortu ere da, agian, Normalkuntza Legearen azken aldiko ebaluazio-saioen ugaria.

3. Garai batean euskal lurralde elebakarraren formulazioa jaso bazen 1982ko Normalkuntza Legearen aurka, erdal monolinguismoaren aldeko *Weltanschauung* edo ikuskera soziofilosofikoa ari da orain han-hemen zabaltzen. Ikuskera hori da, funtsean, bai 1982ko legearen eta bai euskara indarberritzeko beste edozein formula alternatiboren egokitasuna zalantzan jartzen duena. Lehenago edo beranduago aurrez aurre heldu beharko zaio beraz ikusmolde horri: bai oraingo formulazioari eragozten dizkion eragozpenak hotz-hotzean ebaluatzeko eta bai, bereziki, gizarte-ikuskeraren erdalzentriko horren oinarri soziofilosofikoak behar den xehetasunez aztertu eta agirian jartzeko. Funtsean erdal elebakartasunaren alde diharduen *Weltanschauung* horrek ere, beste guztiek bezala, bere hipotesiak eta printzipioak, hipotekak eta mitoak baititu. Honako hauek, besteak beste:

a) **(erdal) elebakartasuna** —kasu honetan, erdara jakin-jakina nonahi eta beti ezinbesteko izatea—

= **unibertsalismoa**. Unibertsalismoa uniformetasunarekin nahasten du ikusmolde honek, muin-muineko eta urrunagoko esferak Mendebal Europa honen historia ezagunean aski bateragarriak gertatu izan direla ahaztuz;

b) **(erdal) elebakartasuna = efikazia**. Gizarte modernoak, bere oinarri ekonoteknikoak bereziki, ezin omen du etnolinguistikazko espazio zatikatuetan aurrera egin. Hala dio ikusmolde honek. Hori ere badakigu, ordea, ez dela beti eta ezinbestean horrela: Suitza ez dabil Portugal baino okerrago, plano ekonotekniko horietan. Funtsean beste interesak, hiztun-herri bakoitzak bere etxea gobernatze aldera bultzatu ohi dituenak, suertatu ohi dira tartean eta interes horiek mahaigaineratu gabe zaila da efikazia ekonoteknikoaren ebaluazio lasairik egitea;

c) **(erdal) elebakartasuna = norbanakoaren askatasuna**. Askatasun indibidualaren murriztaile, traba eta enbarazo omen da hizkuntza eta hiztun-herri txikien etnizitate estua. Pertsonari ez omen dio uzten benetan izan nahi lukeena izaten: gorputz eta arima "bere" bidetik jardungo duen espiritu libre, bertatik bertarako obligaziorik eta itsumenik gabeko bizi-eratzaille ausarta, bere buruari eta bere baitariko sormenari baizik kasu egingo ez dion gizaki betea.

Ikuspegi horrek ere baditu ordea mugak, eta ez nolana hikoak: nola izango naiz ni, benetako ni, baldin nire kideekin —sinesmen eta asmo, beldur eta itxaropen, ohitura eta hizkuntza parekoak ditugun kideekin— nahi dudana guztian batera jarduteko aukerarik ez badut, gu izateko askatasunik ez badut, jaioko diren belaunaldi berriei gure altxor etnolinguistikoa eskuratzeko aukera egiazkorik ez badut? Gizakiaren eta bere Azken Egien lokarri sendoenak apurtzen dituen askatasun-bide desentzifikatzailea noraino da askatasun? Nire kideekin loturik jarraitzeko askatasunik ez badut, zer askatasun-modu da hori?

Bistan dago ikuspegi bion (erdaltasun orohartzailearen eta lekuan lekuko jatoritasun etnokulturalaren) sintesi edo integrazio-beharra: ez gara hemen punta-mutur bien artean zuzena, egokia eta

15. Laurogeiko hamarkadan zehar 1982ko legearen alde biko formulazio haren kontra agertu zen ikusmoldeak, justu kontrako erreparoa jartzen zuen: legea ahulegia zela, ez ausartegia, euskara-erdaren benetako elkarbizitzarik erdiesteko.

benetakoaren zein den formulatzen ari. Zientziak ez du gainera, dakidalarik, hartarako biderik ematen.

4. Hori guztia kontuan izanik, bi eratako —edo, nahiago bada, bi mailatako— eginbeharrak ikusten ditut nik, aurrera begira, irakasmunduko hizkuntz normalkuntzaren sailean. Batetik 1982ko Legea bera berraztertu beharra dago, gero eta maizago entzuten diren goiko desadostasun horien argitan. Legea gure gaurko —eta, itxuraz, bihar-etzieta— gizartearentzat egokia den edo ez berriro analizatu beharra dago. Ez legearen zuzenbidezko egokitasuna, bere balio-ingar soziologikoa baizik. Ez gainera, ezinbestean, aldenik aldeko formula alternatiboa diseinatzeko, ez baitut ikusten batzuen eta besteen kolokan halako formula alternatibo askorik dagoenik, definizio operatibo argiagoetara iristeko baizik. Lehenxeago edo beranduxeago, hura prestatzerakoan legean bertan idatzi ez arren legegile batzuek eta besteek buruan zituzten printzipioak eta azken asmoak, itxaropen globalak eta interes konkretuak mahaigaineratu beharko dira seguruenik gogoeta-lan horretan. Zer zen euskararen erabilera normaltzeko 1982ko legearekin benetan lortu nahi zena, benetan espero zena eta benetan ebitatu nahi zena? Zer-nolako gizarte-modu eratu nahi zen, konkretuki, legearen bizkarrezur moduan luze-zabaleko elebitasun orekatuaren formula aukeratu zenean?, zer aplikazio konkretu begitandu zuten batzuek eta besteek hizkuntz eskubideen norbanako irizpidea hobetsi zenean lurralde- (gurean, seguruenik, eskualde-) irizpidearen ginetik, nahiz eta formulazio bien elkarbiderik falta ez?

Orduko konstruktorearen oinarrian zeuden Euskal herriaren —ez huts-hutsik Autonomia Erkidegoaren— ikusmolde sozio-historikoak eta etorkizunerako adostasun-formulak dira, hitz gutxitan, berriro auzitan daudenak eta, gutxiengutxienez, zehaztaperen handiagoren eskean ditugunak. Hizkuntzaren soziologiak baluke, xede horretarako, zer landu eta zer erakutsi. Gutxiengitan kasu egin ohi zaio jakintza-arlo horri, hainbat erabaki hartzeko orduan. Legelaritzak ere baleukake zer esanik, han-hemengo araubideak konparatuz bereziki. Argi dago ordea, begiak lausotu nahi ez baditugu, herri-agintarien eta soziopolitikazko ideologia desberdinen legezko ordezkarien esparrua dela, ezer baino lehen eta

orearen ginetik, adostasun-bilaketaren hori. Berena da, orobat, azken hitza: aldi baterako azken hitza, jakina, kontuok ez baitira inoiz behin betiko zurrizten.

Oinarritzko gogoetaldi hori noiz egingo den zain egon gabe badaude, bestalde, berehala konpondu beharreko kontuak: hizkuntz plangintzaren terminologian implementation stage deitzen zaion aplikazio-eremuko kontuak dira horiek, nagusiki. Indarrean jarri zenetik inplementazio edo hezur-mamitze sendo samarra izan duenez Normalkuntza Legeak, konpondu-beharrak eta buruhausteak ere ugari sortu zaizkio hamazazpi urteotan. Horietariko hainbati kasuan kasuko irtenbidea aurkitu izan zaio, premiaren larritasun-mailak hala eraginik. Badira ordea puntu batzuk, urteen joanak erabat konpondu ez dituenak edota, kasuren batean edo bestean, larrituz doazenak. Nagusiki, eta labur beharrez, honako hauek aipatu behar dira:

- a) eredu bat edo beste aukeratzeko askatasuna: gurasoen eta ikasleen eskubidea, eredu bat edo beste aukeratzekoa, ez da beti-beti segurtatzen erraza. D ereduak izan da, urteetan, alde horretatik okerren ibili dena. Irakasle euskaldunen eskasiagatik, Bigarren Hezkuntzako —zer esanik ez Lanbide Heziketako— espezializazio-mailak ikasle-taldearen osakeran sortzen dituen eragozpenengatik eta abar. D ereduak gelak zabalduz joan diren neurrian hasierako eragozpen haietariko asko ahuldu edo desagertu egin dira ordea behe-eta erdi-mailetan. Ez, inola ere, Lanbide Heziketan¹⁶. Are gutxiago ikasbide espezializatuagoetan: musika-kontserbatorioetan, adibidez, ikasleen oinarritzko askatasun-eskubide hori ez da oraindik —legea ezarri eta handik hamazazpi urtera— inondik inora errespetatzen. Guztiarekin ere, ikuspegi orokorretik begiratuta gero eta neurri zabalagoan lortzen da eskubide hori bermatzea. Aldi berean, A ereduak nabarmenki ahulduz doan neurrian beste muturreko kexuak eta arazoak hasi dira agertzen: haurra A ereduaren bidali nahi duten gurasoen kexuak, bereziki. Kexu-modu horiek gaur-gaurkoz ez dira ugariak, baina hor daude. Gipuzkoan batez ere, eta herri-ikastetxeetan bereziki, egoera horrek ez du konponbide erraz-erraza.

Egia da, guztiarekin ere, azken 17 urteotako ibilera oso baketsua izan dela alde horretatik: bene-benetako liskarrak ez

16. Hemen ez dago, gainera, irakasle euskaldunik ezaren aitzakiarik hainbat kasutan: sektore publikoan, konkretuki, LHko irakasleen %40k baino gehiagok badu EGA edo HE2. D ereduak, aldiz, ikasleen %7 inguru biltzen du.



dira asko izan, eta hain larriak ere apenas. Horrek ez du esan nahi, halere, aurrera begira puntu hau korapilotsua bihur ez daitekeenik. Eredu bat edo beste aukeratzeko —hots, euskaraz edo erdaraz ikasteko— eskubiderik gabe, ia hogeituz indarrean dagoen elebitasun-markoaren bi oinarri nagusietariko bat indargabeturik gelditzen da;

- b) euskal/erdal irakaspostuak: bakoitzetik zenbat? Ikastetxeetan bertan, irakasleen artean bereziki, kezka-iturri izan ohi da askotan irakaspostu desberdinen hizkuntz eskakizuna. Euskaraz irakasteko euskalduna izan behar duela irakasleak, eta orain izan behar duela euskaldun, ez da eztabaidatzen. Bai, ordea, euskaraz irakatsi behar ez duten irakasleek zer euskara-maila —eta noiz egiaztatua— izan behar duten. D eta B ereduetan, konkretuki, irakasle guztiak ahal delarik elebidun sendo izatea mesedegarri dela: hori ere askok onartzen du. Baina ahal delarik horrek oso ondorio diferenteetara eramán ditzake, eta sarritan eramaten ditu, batzuek eta besteak.

Tira-birak eta kontrako jarrerak pizteko gai aparta da hau ere. Arazoari arauzko konponbideak eman izan zaizkio maiz, formula desberdinak erabiliz horretarako: eredu jakin bateko ikaslerro oso batek zenbat irakasle EGAdun (azken urteotan HE2dun) behar dituen definituz, adibidez. Kontuak konplikatu egiten dira, ordea, ikastetxe berean eredu desberdineko ikaslerroak (adibidez A eta D lineak) daudenean eta, bereziki, irakaspostuen eskakizun-formula portzentuala Bigarren Hezkuntzara hedatzerakoan. Bere klaseen erdiak euskaraz eta erdiak erdaraz eman behar dituen irakasleari ezin eskatuko diogu, jakina, erdi-euskaldun izatea: HE2duna izan beharko du halakok, nahi eta nahi ez, bere klaseak euskaraz eman ahal izateko. Martxa horretan zer leku gelditzen da, ordea, HE2rik gabeko irakasleentzat? Gaia korapilotsua da benetan, eta ez bere inplikazio sozio-profesionalengatik bakarrik. Lehen ere (1980 inguruan, 1983an, 1985ean, 1993an,...) gertatu izan den moduan, litekeena da berandu gabe adostasun-formula berriren bat landu, zehaztu eta arauzkotu behar izatea.

Horrek bakarrik nekez konponduko du, ordea, giza baliabideen alorreko arazo serio hau. Han-hemen besterik entzuten den arren ez baita egia problemaren errua —bere iturburu nagusia eta are bakarra— D eta B ereduen hazkunde denik. Gorago azaldu dugun hazkunde hori oso mugatua

dela termino absolutuetan. Hazkunde handieneko ereduan, D ereduan alegia, 16 urteko 7.869 gazte daude DBHOren lehen kurtsoan, eta 3 urteko 8.482 Haur Hezkuntzaren hasieran.

Giza baliabideen jectioari dagokionez ez da beraz egia problemen iturri nagusia, are gutxiago iturri bakarra, hizkuntz normalkuntza denik: eragile nagusia jaiotza-kopuruaren galera —urte gutxian 40.000 jaiotzatik 16.000ra etorri dena— dugu inolako dudarik gabe. Horrezaz gainera LOGSE legearen erreformak ekarri duen Bigarren Hezkuntzako jakintzagaien dibertsifikazioa ere oso kontuan hartzekoa da. Baita Lehen eta Bigarren Hezkuntzen arteko muga 12 urtera pasa izana, lehengo 14tik. Hori guztia kontuan hartu gabe hizkuntz normalkuntzaren problemez, diru-kontuaz eta abar hitz egitea ez da oso zuzena: baieztapen horrek ezkututzen duena zabalagoa eta larriagoa da, izan ere, agirian jartzen duena baino.

- c) Irakasle euskaldunek behar duten benetako euskara-maila. HE2 esaten denean, zein da benetako eskakizun maila? Euskaraz irakatsi behar duen irakasleak zenbateraino menderatu behar du euskara?: zer neurritan garantizatu behar da, orain eta hemen, euskarazko irakasle batek bere gelan euskaraz hitz egiteko edota idazteko irakasle aleman batek alemanez edo frantses batek frantsesez egiteko duen gaitasun-mailaren parekoa izatea? Irakasle bati HE2ko Hizkuntz Eskakizuna aitortzerakoan non eutsi behar zaio gutxienezko maila praktikoari, euskarazko irakaskuntza osoaren kalitate-maila itxuratxarki erasan gabe eta, ondorioz, D edo B ereduko ikasleak frakaso akademikora bideratu gabe? Muin-muineko galdera da hau ere, bi arrazoiengatik: batetik, eta epe laburrera begira, giza baliabideen alorrean dituen inplikazio sakonengatik; bestetik, berriz, ikuspegi global batetik eta urrutirago begira hezkuntza elebidunaren etorkizunerako duen erabateko garrantziagatik. Aurrekoak ez bezala kontu hau, honegatik edo hargatik, egun-argitara inoiz gutxitan atera ohi da. Ateratzen denean, gainera, desadostasun-kexuen bidez atera ohi da. Kontrako bi punta-muturretatik atera ere: euskara-maila altuegia eskatzen dela (azterketa zailegiak edo desegokiak direla, ebaluazio jarraiarri kasu gutxi egiten zaiola, eta abar) salatu ohi da batetik. Bestetik, berriz, hainbat ikasle, guraso edo irakasleek bere kezka bizia agertu ohi du, eskakizun-maila gaitasun-maila duen zenbait irakasleren benetako gaitasun-mugez eta ezintasunez

oharturik. Pil-pilean dirakien gaia da hau ere, ezikusia eginaz nekez bere hutsean konpon daitekeena.

Gogoeta serio eta sakona eskatzen dute gai hauek ere —eta, hauek bezala, eskola-munduko hizkuntz normalkuntzarekin zerikusi zuzena duen beste hainbatek—. Bistan dago hauetan, Normalkuntza Legearen muin-muineko eztabaidan ez bezala, askotxo dela maila teknikoan berraztertu eta onbideratu daitekeena. Langintza horretan bidaide izatea ez da beti lan gozoa gertatzen, gizartearen hainbat egonezin eta tira-biraren erdian egotea eskatzen baitu horrek. Lan pizgarria da, ordea, ikuspegi teknikoari denik txikienean ere uko egin gabe arrazoizko konponbideen bilaketan saiatzea eskatzen baitu. Hori ere bada hizkuntz normalkuntza: Euskal herriarentzat —kasu honetan Euskal Autonomia Elkartearentzat— hizkuntzazko eta soziokulturazko *modus vivendi* —ez morendi— jator eta esku-zabala eratzen laguntzea.

